


Burutazio laburrak IRAk su etena hautsi duela eta

ORAIN dela urte terdi, 1994ko abuztuaren 31n, urrats harriagarria eman zuen IRAk: britaindarrengandik inolako bermerik gabe, su etena aldarrikatu zuen bere buruz, ordaintan Londresengandik inolako segurantzia politikorik izan ez arren.

Askok pentsatu genuen, garantiarik gabe IRAk horrelako urratsik ematea, sinetsezina zela, eta izkutuan bazezgokeela segurantziaren bat edo: autodeterminazio prozesua bideratzeko egutegi isil bat agian, edo horrelako zerbait. Ondoko aste eta hilabeteotan ordea, apurka apurka, gauza bat joan da garbituz eta nabarmenduz: britaindarren borondate onean finkaturik IRAk beste keinu simetrikiko bat espero zuela Londrestik, beste su eten bat eta autodeterminaziorako prozesuaren abiadura.

EZIN genuen sinetsi. Baina Irlandako berri zuzena zeukatenean asmatu egin zuten: IRAk bere su etena eskaini zuenean Londresek ez ziola ezer agindu. Nolazbait esateko, 'zuritan' jokatu zuela. Londresek, hamazazpi hilabete alferrik pasa ondoren, arrapostuzko su etenik egongo ez zela erakutsi du, jarritako baldintza nagusi horretan: 'Eman ditzala IRAk -zioten Londresen- iskilu guztiak, eta gero ikusiko'.



JOXE LUIS ALVAREZ
'TXILLARDEGI'

HORREN irakurketa bakarra hau da: 'Abertzaleen kapitulazioa aurrenik, eta gero gerokoak'. Inolako konpromezu edo bermerik ez. Britainar armadari eta Londreszale armatuei ez baitzaie alde aurretik iskiluak ematerik eskatu. Bai Espainian bai Euskal Herriko zenbait alderditan ere poz

handia zabaldu zen IRAren hordago ausartaren aurrean. Estatuaren arteko orekaren aldekoek zera zioten: 'IRAK armak eman ditzala, eta kitto'. Abertzaleon artean berriz berehala nagusitu zen beste galdera hau: 'Zertan geldituko ote da irlandarren autodeterminazio eskubidea?. Noiz eta nola antolatuko da autodeterminazio erreferenduma? Noiz erretiratuko da Ipar Irlandatik britaindar armada okupatzailea? Nondik nora erabaki behar da Londresen, Irlandaren etorkizuna? Zer esango genuke Britainia Nagusiaren etorkizuna Dublinen erabaki behar balitz?'

Irlandako arazoa, arazo zaharra, gogorra, odoltsua, nazio askapen arazoa da. Eta soluzio demokratiko bakarra hau da: ondorio guztiekin, irlandarren autodeterminatzeko eskubidea onartzea. Irlandar herriak erabaki dezala bere geroa eta ez britaindar inperialismoak.

OTSAILAREN seian IRAk bonba bat lehertu du Londresen. Irlandaren kondaira trajikoa ezagutzen duen inork nekez pentsa dezake hilketaren errua irlandarrena denik. Autodeterminatzeko eskubide sakratua errotik ukatzen ez badu, behintzat, eta inperialismoa bedeinkatzen.